

# Nortasuna

Mahmud Darwishek sei urte zituen bera eta bere familia herritik bota zituztenean. Hara bueltatu zenean ez zen herririk, israeldarrek kolonia bat eraiki zutelako bertan. Darwishek esaten zuen poesia ez zela adierazgarria nazio askapenerako borroketan, ez baitu berehalako ondorioirik. Hala ere, poeta palestinarra erresistentziaren ikurretako bat da.

Aski ezaguna da euskarara Koldo Izagirrek itzuli zuen *Nortasuna* poema: « (...) Jartzazu / Arabiarra naiz / deiturarik gabea —neure izena nauzu ni / Azkenbako patxadakoa naiz denak ere / kolearen ilintietan bizi diren herri batean. / Nire sustraiak... / denbora sortu aitzin hartu zuten lur / iraupenaren lehertzea aitzin / zipresa eta olibondoa baino lehen / ...belarra hazi baino lehen. / (...) Jartzazu! / Arabiarra naiz. / leak... ikatz kolore. / Begiak... kafe kolore. / Ezaugarri bereziak: / buruan kefiya lokarria ongi estuturik. / Eta ahurra hama bezain gogorra. / ...larrutu egiten du tinkatzen duen eskua. / Maitean dudan hazkurria / oloa eta menda. (...) ».

Idazterakoan errealitate saihesten saiatzen zela esaten zuen, eta begiak estaltzen zituen, bihotza uzkitzen eta belarniak tapatzen; baina aiferrik: errealitatea gailentzen zen beti. Bere testuetan alpatzen den Palestina, ordea, ez da esparru geografiko zehatza, sinboloa baiziki: elkarbizitzaren eta aniztasunaren sinboloa, eta, aldi berean, askatasunaren bilaketarena.

Darwish irakurtzen dugun bakoitzean gerturaten zaizkigu urrutiko gatazkak, eta, egia esan, ez dira guretatik horren desberdinak.



Larrepetit

Castillo Suarez

Darwish irakurtzen dugun bakoitzean gerturaten zaizkigu urrutiko gatazkak, eta, egia esan, ez dira guretatik horren desberdinak

## Hemeroteka

### Aurrekontuen atzekontuak Julen Murgoitio > Gara

Urte urte sasoi honetan zer bi izaten dira inguruan bueltaka. Bata, aurrekontuen kontua. Halloween, bestea. Ez dakit biotatik zeinek sortzen didan beldur gehiago, biotan mozoorozoak ageri zaizkigu eta; egunez batean, gabez bestean. Pasilloetan batak, karriketean besteak. Uuu! Gainera, aurten bada beldurgarri suertatzen den beste elementu bat, Bilboko gotzain laguntzaileak emakumezkoa etika ulertzeko duen etika katolikoa. Hori bada laguntzailearena kontuak atera titularrarena! Hau ikara! Jainkoak anparatu gaitzala! Munduan anparatu behar dituenen zerrendan sartu gaitzala, behintzat! Uuu! Tira! Berrito aurrekontuen dantza. Atekontuak, hobe esanda; azken batez atzetik datozten aurrekontuak dira, urte urte aldatzen den bakarra kontestua baita, ez testua. Are gutxiago testuaren izpirtua. Uuu! Hori bai, aurtengo aurrekontuak sozialak dira, ez dira izango, bada! Ni adinez neure buruan arrazola erabiltzeko moduan nagoenetik aurrekontu guztiak izan dira sozialak. Uuu! Eta, jakina, sozialak diren kontu horietan bat egin dute sozialistek, sozial jeltkideek, sozial popularek eta aurreko guztiak kontua duten banku handietako sozio-nagusiek beraien ere. Zer kontu diren, kontuak atera! Hautua egin behar badut Halloween nahiago, gabez lotan nagoelako. Kalabazak dira zer bi horiek komuna dutena; beldurraren adierazlea batean, eta soziala beste ere batean ulertzen dutenei emana bestean. Eta honetat gotzain laguntzailea isil batean, total mutu, itxura batean testu sakratuetan ez baitago kalabazaren gaineko aipurik; hobeto horrela, aipurik izatekotan seguru kalabaza hura transgenikoa zela! Hor ibili naiz aurrekontuetan arakatzen, ia zer edo zer interesgarri ondorioztatzen dudana. Ez da lan makala izan gerol! Horra! euskararen partida handitu baietz! Ertzaintzaren atalean! Ba bai, diotenez patruila bakoitzean gutxienez ertzain euskaldun bat izango da aurrerantzean. Uuu! Gaztelera ikasteko zirrara batean nago. Ezin dut eszena imajinatu: Lekeitioko antzar gaueko ordu txikeretan, brigada mugikorreko fungoneta batzuk plaza erdian hutsik, plaza hutsik ez, fungonetak hutsik, barrukoek plaza bete dutelako, eta gazte batzuk, odolusten, haiel gaidezka eskuineko fungonetako euskalduna zein den... Eta euskalduna izan bazan sartu dadila kalabazan eta agertu dadila Lekeitioko plazan.

## Zuzendariari

**BERRIAK** irakurleen eskutitzak plazaratzen ditu. Ez dute 2.500 karaktere —espozioak barne— baino luzeago izan behar, eta **BERRIAK** mozteko eskubidea du. Helbide honetara bidali behar dira, izen-abizenak eta herria adierazita: Berría, Martín Ugalde Kultur Parkea, 20140 Andoain, Eskutitzak Internet bidez bidaltzeko: iritzia@berria.info.

### Xabier Lekuona jaunarentzat

Aupa, Xabier Lekuona!

Aspalditik oso gustukoak ditut zure idatzia; egia esan, beti daukat zer bait aurkitzeko edo jasotzeko.

Baina gura nuke zuzenketa bat egitea. Igande honetan *Bou Alakrana* izenburua zeukan idatzian, aipatzen dituzu lau bakaila-ontzi *Bou* bihurtu zirenak, izandako azkenengoren gerran. Lau *boen* izenak ematen dituzu baina bat oker dago. Bai, ba ziren *Bizkaia*, *Gi-puzkoa* eta *Nabarra*, baina laugarrena *Donostia* izan zen eta ez *Araba* izenekoa. Hau guztia dakit etxean sarri entzun nuelako eta *Bou Donostia* horretan aritu zelako, besteak beste, nire aitxixe (aitona) Ancitxo Astoreka bermeotarra eta arrantzalea. Eta ni oso harro nago horrekin.

Beno, txo, eskerrik asko denagatik eta jarraitu horrela.

Artikulu oso polita izan da, eta hemengo askok kontuan izan behar ditugunak aipatzen dituzu, primeran!

Besarkada bat eta aurrera!

Josu Imanol Unanue Astoreka. Bermeo.

### Kalean, ikasgelan, liburuetan... ikasleok Euskal Herria

Euskal Herriari eta bertako ikasleoi, Hezkuntza Sistema Nazionala izateko eskubidea ukatua zaigu. Curriculum arrotz eta inposatuaren bitartez, izaera, eredu eta balio espainoi eta frantsesetan hezten gaituzte euskal ikasleok. Inposizioak eta pairatzen ditugun eraso zein eskubide urraketak asko dira: greba egiteko debekua, kartelak jartzeko trabak, gure historia ikasteko ezintasuna, jaiegun eta curriculum inposatuak, parekidetasunaren hezketeko eskubiderik eza, jazarpen polizia itogarria... Nafarroako Gobernuarentzat urraketak hauek gutxi direlakoan edo, Nafarroako ikasleak sumiso eta akiritiko nahi gaituen honetan, bere inposizioarekin aurrera segitzen du. Nafarroako Gobernuak bere hezkuntza eredu atzerakola inposatu eta Nafarroan *Euskal Herria* termino kultural gisa ere ezabatu nahi dute. Eta larriagoa dena, eskolaren autonomiaren aurka ekin eta testuliburuaren *zerrenda beltza* delako osatu dute.

Baina ikasle nafarrok ez gara isilik geratuko erasoaldi hau ikusita. Gure eskubideekin jolasean ez da inor ibiliko, kokoteraino gaude! Urteak daramatzagu borrokatzen, arrotz zaiguna iraultzen eta dagokiguna eraikitzen, eta konpromiso hori berresten dugu. Inposizio guztien aurka, gure marra gorriak markatzeraz goaz!

Urreak nahi gaituzte, baina ez gara urreak; egoera beltz honen kontzientzia hartua dugu, eta beraz iraultzeko hautua egin dugu. Urreak nahi gaituzte, eta beharrezko zaizkien dekretu, lege, errepresio eta mehatxu guztiak erabiliko dituzte gure kontra. Baina

guk etsaiari aurre egin eta nahiko helduak garela erakutsiko dugu. Inposatzen dizkiguten Hezkuntza Sistema Arrotzak suntsitu eta Euskal Herriari dagokion Hezkuntza Sistema Nazionalaren aldeko erakuntzan borrokatuko gara ikasle eta abertzaleok. Euskal Curriculumaren alde gure ikastetxeetan borrokatuz, eskolak euskaldundu behar duela pasabideetan ozen oihukatuz edota gure egutegi propioa aldarrikatuz ekingo dugu Hezkuntza Sistema Nazionalaren aldeko borroka.

Hautua egin daukagu. Maite dugu gure herria, eta maite dugu gure herria ikastea, berarekin eta berarengandik. Horregatik, Euskal Herria ez dute inoiz testu liburuetatik ezabatu, ikasgeletatik aterako. Nafarroako estatu izan ginelako, Euskal Herria garelako eta herri aske bat izango garelako. Ikasle borroka izortuko dugu!

**Aiaitz Gonzalez, Maitane Fernandez, Markel Ganuza, Goizane Villabona eta Garbiñe Urria.** Ikasle Abertzaleetako kideak.

### Luis Nuñez Astrain gogoan

1974 inguruan, eta Francoren amaiera gertu sumatzen zelarik, Patxi Altuna etorri zitzaizdan Hendaiara. Bera gertu zegoen diktadorearen heriotzaren ondoren EUTGetan eta Deustuan euskal filologiari buruzko eskolak nik ematen hasteko; eta komeni zitzaizdala irarisen nik «*par correspondance*» Lizenzia ateratzeko.

Eta halaxe egin nuen Sorbonan matrikulatuz.

Hots, bidaietako batean Sorbonako Tesien multzoa arakatzeko aukera izan nuen.

Eta hantxe (hura sopsespa!) Luis Nuñez donostiarraren lan bat topatu nuen: *Fonología consonántica de un idiolecto del euskera de Zuberoa*. 1976an gaztelan argitaratua. Ezaguna nuen ordurako Estatu Sozialistetako ekonomiaz egindako *Incentivos económicos en los países socialistas*. 1977 argitaratua.

Horra hur haseratik Nuñezen izari bikuna eta iraukorra: Euskararen kezka, batetik; eta Sozialismoarena, bestetik.

Gaur egun bi liburu trinko dauka irakurleak, biok laburtzapean bilkain.

Euskal Herriaren kondaira politikoa bata: *La razón vasca* (Txalaparta, 1995).

Eta euskararen kondaira antzinatetik gaur arte: *El euskera arcaico* (Txalaparta, 2003).

Orain dela urte batzuk ikasle gisa matrikulatu baitzen Gasteizen.

Hau dela-eta, maisuki azaldurik, Mitxelena, Gorrotxategi, Lakarra, eta besteren azkeneko iritziak bilduz.

Luis joan zaigu ondikotz, 70 besterik ez zuelarik.

Baina utzi dugun obra erraldoia hor dago.

Mila esker, Luis, bihotzez.

**Txillardegi.** Donostia.

www.berria.info

### Biltzeko beharra

Duela 30 urte, guztiak ezker abertzaleari egozten zioten errealitatek kanpo egotea. Aldiz, 30 urte geroago, ezker abertzalearen borroka ekarri du estatutua gehiengo baten begietara agortua egotea, eta marko berri bat eraikitze-

ko indarra berpiztu. Ezker abertzaleak estatutuari ekin bat egin izan balu, gaur egoera makturrago genuke. Autodeterminazioan eta lurralde batasunaren oinarritzen den marko berri bat eraikitzeko garaia da, bil gaitezen!  
**Irakurle bat.**